AURKEZPEN DOSSIERRA

SARRABETE

Txori Arraina

TXORI ARRAINA

Sarrabete taldearen bigarren lan diskografikoak Txori Arraina du izenburutzat. Hamabi abestiz osatutako diska honetan taldearen konposaketa originalak dira nagusi.



Diskoari izenburua ematen dion abestiak oso istorio berezia kontatzen du, “txoriaren gaixotasuna” izeneko sindrome bat dela eta bi haur dorre batean giltzaperatu zituzten ingurukoen kontagioa ekiditeko asmoz. Umeak gizartetik guztiz aldenduak leihoak ireki eta itsasora salto eginez bertan txori arrain bihurtzearekin amets egiten dute behingoz askatasuna lortuz.

Lan kontzeptual bat ez den arren badaude hainbat abestietan errepikatu daitezken **kontzeptu edo sinboloak** , itsasoa, hegaztiak, haizea, ura edo askatasuna esate baterako **leitmotiv** bezala ulertu daitezkenak, grabaketari nolabaiteko osotasuna edo tematika ematen diotenak.

Musikalki ere osotasun hau erraz hantzeman daiteke afinazio irekien erabileran edo erritmo eta tonalitate errepikakorrei esker.



Abesti hauen hitzak guztiz originalak dira, hein handi batean taldeko abeslariak, Irati Bilbaok idatziak.

Hitz hauetan etengabe aipatutako erreferentziak ageri dira eta pisu handiko tematikak aurkitu daitezke, esate baterako memoria historikoa (Alzheimer) gaur egungo gizartearen gabeziak (Ekitate) edo existentzialismoaren galderak (Nor Garen).

Diskaren grabaketa Zamudioko **Trikileku estudioan** egin zen **Unai Mimenza** soinu teknikari ezagunaren gidaritzapean. Nahasketa eta masterizazioa ere Mimenzaren lana izan dira.

Produkzio musikalari dagokionez Xabi Aburruzaga izan dugu gidari, trikitilari esanguratsu eta euskal herriko folk panoraman erreferentziazko musikaria dena. Aburruzagak proiektuarekiko apustu finkoa egin du lanaren aberastasuna eta etorkizun oparoa ikusiz.

Lehen mailako kolaborazio batzuk aurkitu daitezke grabaketan.

Aburruzaga bera **trikitixarekin, Teresa Jareño albokaria** eta gaur egun mundu mailan txalapartarekin erreferente diren Harkaitz Martinez de San Vicente eta Mikel Ugarte, **Oreka TX**.





Diseinua ere oso aipagarria da. Estetika landu eta originala sortu du Pablo Bueno, taldeko gitarra jole eta argazkilariak abesti bakoitzerako irudi bat sortuz zeinak kantaren erreflexu diren.

Argazki hauek Urdaibaiko puntu ezberdinetan eta Urkiolako Parke Naturalean atera dira.

TALDEA

Sarrabete 2020 urtean Pablo Bueno eta Gorka Bravo Barreirok sortutako proiektu bat da helburu argi batekin; zarrabetea, euskal folkoretik ia desagertua dagoen instrumentu ezezagunari garrantzia eman eta kutsu didaktikotik ateraz ispiritu garaikideko musika talde bate baten parte bihurtu.

Musika tresna honen aparteko soinua da taldea berezi egiten duena.



Taldearen soinua eklektikoa da, izan ere musikari bakoitzaren ibilbidea ezberdina izan da. Hauen arteko orekak erritmo eta melodia tradizionalak, armonia sofistikatuak, kutsu klasiko eta garaikideak batzea ahalbideratu du emaitza original eta bakana lortuz, iragana eta oraina nolabait elkartuz.



GORKA BRAVO BARREIRO

Gasteizen jaioa eta Euskal Herriko Unibertsitatean magisteritzan diplomatua eta Oviedoko kontserbatorioan gaita gradu profesionalduna.
Maila handiko irakasleekin gaita, zarrabete, alboka eta perkusio tradizionala jotzen ikasi du urteetan zehar.
Hamabost urtez irakasle lanetan eta gaita taldeetako zuzendari bezala aritzeaz gain Carlos Núñez, Kepa Junkera, Oskorri, Korrontzi, Luar Nalubre edo taldeekin egin du lan.

PABLO BUENO

Zaragozan jaioa, Euskal Herriko Unibertsitatean magisteritza musikalean diplomatua eta Musikene Euslal Herriko goi mailako musika ikastegian gitarran titulatua da.

Irakasle eta musikari lanak konbinatzen ditu hainbat eskola eta musika talde ezberdinekin, esate baterako "Capitán Tortuga", "Kuttune" edo "Kolme Katu".





IRATI BILBAO

Abeslari Durangarra, Musikene, Euskal Herriko goi mailako musika ikastegian jazz kantuan lizentziatua.

Estilo ezberdinetako hainbat proiektutan dabil, Ekuru, Josu Bergara, Jazzbana Ensemble edo Bilbao Lindy Band besteak beste. Guzti hau musika irakaskuntzarekin konbinatzen du.

2020an bere bakarkako lehen diska publikatu zuen, "Begin izenekoa.



JORDI ARCUSA

Bartzelonan jaioa, Taller des Musics eskolan ikasi eta ondoren Musikene Euskal Herriko musika ikastegietan tronboi jazzean titulatu zen.

Musika moderno eta tradizionala nahasten dituen hainbat proiektuetan murgildua dabil musikari, konpositore eta moldatzaile gisa, esate baterako "Nostrum Big Band" edo "Kuttune" taldeetan.



NEREA QUINCOCES

Artziniegan jaioa, Musikene Euskal Herriko goi mailako musika ikastegian perkusioan titulatua da.

Iberiar tradizioko musika ikerketan murgildua dabil kantua eta perkusioarekin "Kuttune" bere folk fusio proiektuan.

Honez gain Afrokubar perkusioan aditua da baita bere ikasketak Cuban burutuz.

Boskote formatuan aurkezten dute beraien zuzeneko proposamena, ahotsa, zarrabetea, gitarra, baxu elektrikoa eta perkusioarekin. Errepertorioan abesti propioak nagusi diren arren euskal folkloreko melodia eta aerritmoek bere tokia aurkitzen dute.

Taldeak **zuzeneko proposamen ezberdinak** eskaintzen ditu bandaren bakarkako kontzertuaz gain **musika dantzarekin uztartuz.** Alde batetik Garazi Egiguren dantzariaz lagunduta, zeinak pauso tradizionalak mugimendu garaikideekin batzen dituen adierazkortasun izugarria lortuz, eta beste alde batetik dantza bertikalarekin osatutako ikuskizuna Aire & Lurra izenekoa.

KONTRATAZIOA



ELECTRIC BULEGOA
MANAGEMENT & PRODUCCIÓN
WWW.ELECTRICBULEGOA.COM

Email: electricbulegoa@gmail.com
Tlf. 658 713 572 (Oscar)

Instagram @sarrabete

Youtube : sarrabete